

01. ENE LURRA

(Pier Paul Berzaitz, Jean Pitrau Atharrastarra gogoan)

Ene lurra zelu argi bat non ere distiran zilarrezko arraietan
Jeikitzen zaikun goizank'ekia egun soilen edo alaitsuaren herrokan
Ene lurra olerki bat iraztorra olalte soro berdeek alaik'idatzirik
Larrazkeneko urrek apainturik uhaitzak luzaz xuxurlaturik
Ene lurra oihu bat arane basen goitik ezagun den oiartzun mingarria
Ardi saldoen txintxen eta marraken artetik nahas mahas borogatua
Ene lurra hasperen bat amodioaren mina maitasunaren etsidura
Denboraren sarietan aiten hitz ordu galduen irrintzin eta zinka
Ene lurra kanta bat bi botzetan emanik pastorean edo ostatu xokoan
Blues-bat soul musika zakurraren xanpan belatxaren kurrinkan
Ene lurra dantza bat zeluari dei bat lurrari desafio bat
Suita Monein-ak la gabota godalet dantza barrikada bat
Ene lurra amodio bat alegrantzian ereina bena kemen estaliz epeltua
Hor gure seme alabak Xuberoa zer duk gogoan hiltzea ala bizia

02. HEMEN

(Bitor Gandiaga Artetxe / Pier Paul Berzaitz)

Hemen euskaldun izatea bezalako
gudaririk ez dago
Hemen euskaraz irakurri
eta euskaraz idaztea bezalako
iraultzailerik ez dago
Hemen euskara indartzea bezalako
indar politikorik ez dago
Hemen euskara adinako desafiorik
inperio zurrupariaren aurka ez dago
Hemen euskara adinako
Askatasunaren aldeko
itxarobiderik ez dago

03. LARRAZKEN EDERRA

(Pier Paul Berzaitz)

Norat galdu dira egun ederrak
Bedatse berriak guri emanak
Urtero bezala Andere naturak
Llaburtzen egunak jaunsten urreak

Gaztana margotxak erortzen dira
Arbolen adarrak bilaizi eta
Urzo saldo urdinak iragan ondoan
Uste gabe sartzen gira neguan

Sasu ederrena larrazken okrea
Ez du nahi utzi neguari lekua
San Martiko uda hain zaiku ezia
Gozatu behar da ahal guzia

04. VATH D'ASPA

(Pier Paul Berzaitz- Itzulpena : Joan Brèç Brana)

Que sòi aquera ombra blanga e negra
Un bandolèr de l'arribèra
Sol e desapolingat
Amna esbarrida en la ciutat
Aqeras caras qui espían
L'aguila negra en lo Palais
Hòra-viengut shens nat papèr
Que son de lops beròi vestits

Ò mon Pèis Ò ma montanha
Saunejaire de tot çò qui as
Que cèrqui tas honts briventas
Peus sendèrs deus nostes aulhèrs

Un shisclet que trauca l'escur
Mes qui'u poderà entèner
O shens lo jutjar comprèner
Que s'i pòt morir de tròp demorar
Lavetz que seguirèi lo gave
Ent'arribar dinc a la mar
S'entenetz doman la campana
Amics cantatz per'mor de jo

Tà las maisons de pèiras grisas
Que lo vent baila tot doç
Taus vilatges deus vielhs pairans
En gran dòu devath los berrets
Deishatz-me volar de cap l'ahida
Capsús de Bòrça e de Sarrança
Dab mas aletas de papèr
Lo còr gaujós a l'arrajòu

05. ATHARRATZEKO BIDEAN

(Benat Sarasola / Pier Paul Berzaitz)

Gaua zen al'eguna zen Atharratzeko bidean
Ulun zen al'argi zen Atharratzeko bidean
Iratzarik ote nintzan lo beti aitzinago et'ulunago

Atharratzen nintzan ni ere
Besoak dilingo ametsez agudo
Atharratzen nintzan ni ere
Ene bazterrean norbait badago

Gaua zen al'eguna zen Atharratzeko bidean
Ulun zen al'argi zen Atharratzeko bidean
Neskaltila ala potiko ene ganat higo nontik hor hago

Atharratzen nintzan ni ere
Ororetan lano barne ala kanpo
Atharratzen nintzan ni ere
Ezin jakinean galdurik nago

Gaua zen al'eguna zen Atharratzeko bidean
Ulun zen al'argi zen Atharratzeko bidean
Lagunari galtatzean izar bat ikusi dut jarlekuan

Atharratzen nintzan ni ere
Atharratzen bizi beitu aspaldi
Atharratzen nintzan ni ere
Hil zela entzunik beti dago xutik



06. BEGIRATZEN DIT GOGOAN

(Itxaro Borda / Pier Paul Berzaitz)

Begiratzzen dit gogoan
Buruhonaren xokoan
Etxe barneko usaina
Amak goizik egin salda
Familiako mahaina eta
Sukalteko malda

Begiratzzen dit gogoan
Oritzapenen xoroan
Bustia ezkaratzean
Aitaren tresnen balantza
Xingar azpien atzean eta
Sagutxoan dantza

Begiratzzen dit gogoan
Memoriaren goxoan
Arin doan aize ona
Ogien uhain hoillia
Zeru urdinen sakona eta
Larrosen loria

Begiratzzen dit gogoan
Bizitza nola badoan
Ene herrikoen soa
Arnoan galdu basoa
Perla sortu izerdia eta
Erran hitz erdia

Begiratzzen dit gogoan
Azken beltzaren mokoan
Haur nintzeneko denbora
Ur eta oiha artean
Nola lehen bedi lora
Zorion bat anartean

07. ROAD'S END

(Itxaro Borda / Pier Paul Berzaitz)

Pannecau zubipean badabil Errobi
Ur hatsa lano eta ke arin goizean
Izan dadila gure ametsen hil hobi
Aldiz aldiz haserre nahiz otoitzetan

Kaia ertzean oina pausatu berrian
Bozkarioz beztitu itzalen gainetik
Bukatu zen bidea nere sorterrian

Karrikan aurkitu zintudan bihotza
Larrurik gabe eta intziri dolorez
Hurbildu zen basati gero uda hotza
Desirak oro utziz herdoila kolorez

Isurtzen d'Errobi ohe apainetan
Pannecau zubipean haguna gerrian
Itsas eten gabea helburu zainetan

08. 6AM HENDAIA

(Itxaro Borda / Pier Paul Berzaitz)

Bidea egin nuen zure eskutikan
Loiatik Hendaiara harri latzetarik
Higamen latzak ziren ageri zutikan
Doloretan bezala bizi hatzetarik

Arkaitzetan txoriak beti buru bero
Jazarri eta aira bazebiltzen bozik
Uhinari musuka Ondarraitzen gero
Maitasunerako ez bailuten lotsik

Zilarra zen hondartza eta bi begiak
Zabalik zenekusan Bidasoa urtzen
Balakatuz samurki Txingudi hegiak

Maita desira ez zen inola makurtzen
Urrats biluzi baten gezurrak egiak
Nahastean ondikotz ginela agurtzen

09. LARRUN

(Itxaro Borda / Pier Paul Berzaitz)

Larrunen

Jende itxurako harkaitzek galdatzen dute
Lurrez harriz eta airez moldatu tontor batek
Nola osa dezakeen muga geografiko bat
Ibiltari bakarti eta gogotsuak
Xenda dudakorrean doala

Laino argiz troxatu artaldi karratu baten parrean
Axolagabetasun salbagarriaz
Lau haize hegalk behatzen ditu

Geroa ez badut lortzen
Mendiko harriengaindik
Segituko duket sortzen
Amets biguna oraindik

Larrun kaskoak
Bere onginahi urdina hedatzen du
Soa ortzaizean galtzen zaion
Munduari segurtasun bat emanez
Zergaitik izan nonbaitekoak
Denetakoak girenean

*Haice largoz badoaçi
çabalerat irabaçi
Itsasoan barna urrun
Begüz zein ikusi Larrun*

10. MARTXA BATEN LEHEN NOTAK

(Joxean Artze / Mikel Laboa)

Eguzkiak urtzen du goian gailuretako elurra
Uharka da jausten ibarrera geldigaitza den oldarra

Gure baitan datza iguzkia iluna eta izotza
Urratu dezakeen argia urtuko duen bihotza

Bihotza bezain bero zabalik besoak eta eskuak
Gorririk ikus dezagun egia argiz beterik burua

Batek gose diraueno ez gara gu asetuko
Bat inon loturik deno ez gara libre izango

Bakoitzak urraturik berea denen artean gurea
Etengabe gabiltza zabaltzen gizatasunari bidea

Inon ezinor menpekorikan nor bere buruan jabe
Herri guztiok bat eginikan ezigabiltz gerorik gabe

11. BAZTANGO LURRA

(Xabier Lete / Pier Paul Berzaitz)

Zugarramurditik indarrez zetozten
Aintzinako ur garbien murmurrean
Nabaitu nuen oraindik estali gabeko
Bizitza sendo baten edertasun guzia

Maitatzeko leku paregabea
Gorputz berritzaren kimu gartsua
Begi urdinen birbizta bide eskutueta gora
Eta gora dijoan Herri zahar baten pausoa

Zu Bartzango lurra noblea
Eta illuntasunik gabea
Udaberriko eguzkitan berotua
Lore berrien musika goxoa
Mendi tontorretan xuriz jantzia

Zeinen lur ederra Bartzan-goa

Hiltzen naizenean gurutzerik gabe
Pake pakean zure ondoan
Bertso xamur batzuen azpian
Hantxen nahi nuke betiko loartartzea

Bartzan-go lurra zuga aurkitu nuen pakea

12. NEVADARAKO ARTZAINER

(Pier Paul Berzaitz)

Nevadarako mendian
Artzain hasi nintzanian
Mila ardiren zain ni bater'ez artzain
Maitea horiek oro noren gain

Seminolen pakadetan
Bazkarazi dugu frangotan
Indioa da libro sekulan esklabo
Hilen beita izan beno

Hartza esnatzen delarik
Eta mintzatzen harpetik
Pentsatzen dut beti ene Herriari
Gaxo ama tristeari

Ni gal banendi Nevadan
Arranoen hil herrian
Bakartasunean nehoen gogoan
Berriz arte best'aldean

13. IKUSTEN DUZU GOIZEA

(Jean Baptiste Elizamburu)

Ikusten duzu goizean
Argia hasten denean
Menditto baten gainean
Etxe tripitto aintzin xuri bat
Lau haritz ondoren erdian
Xakur xuri bat atean
Iturrino bat aldean
Han bizi naiz ni bakean

Nahiz ez den gaztelua
Maite dut nik sor lekua
Aiten airek hautatua
Etxerik kanpo zait iduritzen
Nonbait naizela galdua
Nola han banaiz sortua
Han utziren dut mundua
Galtzen ez badut sentzua

*Le matin, quand le jour se lève,
On peut voir sur un coteau
Une petite maison blanche
Entourée de quatre chênes.
Un chien blanc au seuil de la porte,
Une fontaine sur le côté,
C'est là, que je vis paisiblement.
Bien que ce ne soit pas un château,
J'aime l'endroit où je suis né,
Celui choisi par mes ancêtres.
Quand je suis loin de ma maison,
Il me semble que je suis perdu.
Comme j'y suis né, c'est là que je quitterai
Ce monde, si je ne perds pas la raison.*